

HISTORIA. Bost aditu izanen dira hizlari: Agirreazkuenaga, Aizpuru, Goienetxe, Majuelo eta Mees irakasleak

Euskal Herriko historiografia aztertu eta erronkak zehaztuko dituzte Iruñean

Geronimo Uztariz Historia Institutuak antolatutako mintegia etzi egingen dute Nafarroako Unibertsitate Publikoan

E. Elizondo | IRUÑEA

Euskal Herriko Historiografiari buruzko mintegia antolatu du Iruñeko Geronimo Uztariz Historia Institutuak, urtea agurtzeko.

Etzi, ostiralean, egingen dute, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, erakunde horretako Geografia eta Historia Sailarekin elkarlanean antolatu baitu Geronimo Uztariz elkarteak mintegia, unibertsitateko Giza Zientzien Fakultatearen laguntzarekin. NUPeko Gurbitzen eraikinean izanen da, goizeko 09:30etik aurrera.

Euskal Herriko historiografiari buruzko ikuspuntu zabala eman nahi du mintegiak, eta, horretarako, hainbat alderdi jorratuko dituzten adituak bildu dituzte antolatzaileek. Geronimo Uztariz Institutuaren helburu nagusia, dena den, ez da adituen azalpen hutsean gelditzea, haien eta entzuleen arteko eztabaida bultzatzea baizik. «Eztabaida sortu nahi dugu, iritzi trukea gerta dadila», azaldu zuen atzo elkarteko kide Patxi Larrionek.

Bost aditu errealtatea aztertu eta erronkak zehazteko

Mintegian lagunok parte hartuko dute: Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) katedradun Joseba Agirreazkuenaga, unibertsitate bereko irakasle Mikel Aizpuru, Paue eta Aturri herrietako Unibertsitateko irakasle Manex Goienetxe, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Emilio Majuelo, eta EHUko irakasle Ludger Mees.

Agirreazkuenagak *Euskal Historian barrena. Etorkizunaren ikuspegitik abiatuz* izenburuko hitzaldia eskainiko du, eta, Aizpuru, berriz, Berrezarkuntzako Historiografiaren, eta garai bereko gizarte eta politikaz ariko da bere parte-hartzean. Hirugarrenik, Goienetxek Ipar Euskal Herria izanen du ardatz bere mintzaldian, eta hango Historiografia aztertuko du, XIX. mendean kokatuta, beti ere. Majuelok, ondoren, Euskal Herriko historiografiak egun dituen erronkak aztertuko ditu, eta Meesek, azkenik, euskal abertzaletasunaren Historiografia izanen du mintzagai Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Goizeko

PATXI LARRION

Geronimo Uztariz Institutuko kidea

«Errealitatearen argi-itzalak zein diren ikusi, zer erronka dagoen eta egin beharreko lana zein den aztertu nahi dugu»

JOSE MIGUEL GASTON

Geronimo Uztariz Institutuko kidea

«Iazko kongresuaren emaitzetako bat da aldizkariaren aurtengo zenbakia»

09:30ean izanen da lehen hitzaldia, Agirreazkuenagarena, alegia, eta antolatzaileen arabera, bazkalordurako amaituko da mintegia.


«Euskal Herriko Historiografiaz asko hitz egin da; gure asmoa da egun zer dagoen azaltzea: hau da, argi-itzalak zeintzuk diren ikusi eta, errealtatetik abiatuta, zer erronka dagoen eta zer lan egin daitekeen aztertu», azaldu zuen Larrionek etzi egingen duten mintegiari buruz.

Geronimo Uztariz Historia Institutuko kideak, gainera, ekitaldi horrek izanen duen izaera irekia azpimarratu zuen: «Aditu eta irakasleei ez ezik, interesa duen orori zuzenduta dago; nahi duen orok parte har dezake. Gure asmo nagusia da guztien artean eztabaida sortzea», erran zuen.

Urte osoko ekitaldiak: hainbat jardunaldi

Euskal Herriko Historiografiari buruzko etziko mintegiarekin amaituko da Geronimo Uztariz Historia Institutuaren aurtengo programa. Ez da, noski, urteko ekintza bakarra izan. Joan den irailean, adibidez, 10etik 12ra bitarte, Historiaren irakaskuntzari buruzko jardunaldiak egin zituen Geronimo Uztariz Institutuak.

Elkartearen ekitaldien barnean, halaber, Nafarroako Historiari buruzko kongresuak garrantzi nabarmena du ere; hirugarrena iazko azaroan egin zuten, Iruñean.



GARI GARAIALDE

Manex Goienetxek Ipar Euskal Herriko historiografia aztertuko du Iruñean.

INSTITUTUAREN ALDIZKARIA

Aurtengo zenbakia kalean

Jardunaldi eta kongresuak antolatu ez ezik, Geronimo Uztariz Historia Institutuaren lana jasotzen duen aldizkaria argitara ematen du elkarte horrek, urtero. Atzo, aurtengoa aurkeztu zuten taldekideek, hamaseigarrena, alegia.

Zenbaki horretan, nagusiki, iazko azaroan Nafarroako Unibertsitate Publikoan egin Nafarroako Historiari buruzko kongresuko lanak jaso ditu Geronimo Uztarizek. Aldizkariako edukia hiru atal nagusitan banatuta dago: lehenengoan, lehen frankismoaren garaiko Nafarroako gizartearen hainbat alderdi jorratu dituzte hainbat adituk: Rebeca Ortega, Gemma Zabalza, Esther Casanova eta Gemma Pierolak, alegia.

Bigarren atalean, euskal nazionalismoaren atarikoak aztertu dituzte Mikel Aizpuru, bate-tik, eta, Alberto Irigoienek, bestetik. Hirugarren

atal batean zenbait egileren ikasketa edo ikerketa lanak jaso ditu aldizkariak, Manuel Martorell, Fernando Mendiola, Jose Maria Jimeno Jurio, Angel Garcia eta Fernando Mikelarenarenak, zehazki.

Aldizkariaren hamaseigarren zenbaki horren inguruan, iazko kongresuak emandako emaitzetako bat dela azpimarratu zuen Jose Miguel Gaston Geronimo Uztariz Institutuko kideak. Baina ez da bakarra izanen, hark atzo jakinarazi zuenez eta aldizkariak berak argitzen duenez, eta, laster, kongresu hartan aurkeztutako testu eta lan guztiak jasoko dituen liburua argitara emanen du Nafarroako Unibertsitate Publikoak, *En torno a la Navarra del siglo XX: Veintiún reflexiones sobre sociedad, economía e historia* izenburupean. Lan hori bukatu berri den mendeari buruzko azterketak egiteko tresna baliagarria izanen dela uste dute elkarteko kideek.